

PIERRE LAFITTEREN OMENALDIA

Baigorri, 1977 - X - 22

Emile Larre

Bizi hunek zein itsuak dituen bere bideak! Nik segurik ez dut egundaino amestu ere, Pierre LAFITTE jaunaren eskoliera nintzalarik, bere laguntzaile behar ninduela egun batez kasetalaritzan.

Denbora heietakotz, zer gizona ez zen LAFITTE guretzat! Eskola orenaren bururatzeko, edo asteartetan ginuen euskarazko ikasaldiaren biperrestatzeko, hartzen zauzkularik kaseta zahar horitu batzuetan pikatu artikuluak, holakoak hau idatzi eta nik hola ihardetsi, pindarra zaion euskaran, edo beharrez frantses zainart batean, bietan berdin trebe baitzen gure erakasle jakintzun zorrotza.

Ez baitzagon ordukotz geldirik gure Piarres! Uztaritzen, frantses eskoletan beste edozein erakaslek bezenbat eginik ere, bazituen, besteak beste, bere bazterbideak eta zeiharkak, arte-marteka, kasetalaritzan: Eskualduna kaseta astekarian, SOUBELET eta AROTÇARENAREN denboran, bixtan dena, bainan ere tokiko beste kasetetan okasioneaz balia, bereziki han irakurtu ateraldi zenbaiten aintzinean ixilik ezin-egona heldu zitzaizalarik, edo, xoilki, norbait Lafitten argi eta jakitatez behartzen zelarik.

Bainan holako luma erne eta izpiritu aintzinkorra ez bide zirelakotz edozein idazkari prestutan mugatzekoak, izan ditu gazte denboran bere agerkari ausartak ere, bereak: "Le palmipède, organe régionaliste jemenfoutiste relié à Washington par Charenton"... erdaldunentzat.

Hau ere erran behar duta? Kaseta bat egin nahi izan zuten Donibane Lohizuneko andere gazte batzuek: "Le Carillon des jeunes", neskato gaztearen eta emaztearen aurkibide bipila. Ez izanez andere hek berak aski hortakoak, nor uste

duzue hatxeman zutela beren kaseta horren idazle berezi? gure LAFITTE, alabainan!

Halere, nahiz horiek ere merezi duten aipatzea gure gizonak zuen kasetalari-gaiaren eta jitearen konprenitzeko, ez zagon ez hor gure Piarres LAFITTE egiazkoa. Hor baino gehiago zen ageri euskal kasetan idazten zuelarik, bai-eta Euskararen eta Euskal-Herriaren geroari buruz lanean ari zelarik.

Preseski gai horietaz, gogoan zituen guziak, orduko Eskualduna bezalako astekari muntto eta serio eta doi bat prestu batean ezin erranez edo nik dakita zeren gatik?... beste euskal agerkari bat, ilabetekaria, atera zuen 1934-an Lafittek lagun gazte batzuekin. Izena ongi hatxeman zioten: "Aintzina" eta hala zen, orduko beste agerkari, euskaldunak ere baino, aintzinkorragoa egin zuten: abertzaletasuna, emaztearen boz emaiteko gaitasuna, gizartearen sozialtasuna eta langilearen zuzenak, denbora hetan egiten ez zen bezala aipatzen zituen Aintzinak. Lehen lumeroak berak herria eta herrizale-



P. Lafitte eta A. Irigaray.

tasuna goستن zituen, langileen elkargoa eta zindikalismoa ere bai, gazteak agurtzen, eta euskara itotzen duen frantses eskola jaukitzen: 43 urteren buruan iduri du kasik Aintzinak egungo giroaz mintzo zaikula! Nori esker? Ez da galdatze beharrik.



P. Lafitte eta E. Larre.

Biskitatean Eskualduna era bazoan bereari, urrats eztiagoan eta orduko kargudunen ara hobeki kausituz, egia erran! Bainan horra 39-ko gerla. Eta ixtantekotz alemanak gure artean beren urrats pizu zapatzailearekin. Ainitz izpiritu durduzatu den denbora, nahitez. Eta gerla ondoan konduak egin behar! Kaseta askok gerla ondo hortan galtzen dute berriz agertzeko baimena. Eskualduna hetarik da.

Zer egin orduan? Euskaldunak beren astekaria gabe utzi? Ez holakorik! Biltzen dira Milafrangan, Monseigneur Saint Pierre apezpiku euskaldunaren etxean, Leon Leon Uzta-ritzeko ertora (hau akulatzaile), Moulter-Oxobi ertora, Etche-

verry Milafrangako ertora, Elissalde-Zerbitzari eta Louis Dasance Uztaritzeko auzapeza.

Norbait behar dutela hautatu kaseta berri baten egiteari lotzeko, bainan nor? St. Pierre apezpikuak proposatzen du P. Lafitte apeza: errezitentzian bermatua, beraz ordu hetan ongi ikusiak ziren gizonetarik izaki! Aipatzen diotelarik, hunek alditz: "Bainan ni errea niz *Aintzina* agerkariarekin (hau gelditua zen, hiru urtez agerturik)". Bestek, ez dela xau-xunkerian artzeko ordua. Funtsean hautsi-mautsi bat egiten dute hitzez bederen, elgarren eta kaseta berriaren idaiez; eta ondoko ortzeguneko hitzartzen dira Mgr. St. Pierren etxean berriz bilduko direla.

Kasetari izena hautatu zioten hor. Aipatu zituzten izentzat Argia (baina izen hortakoa Donostian jada izanki), Oiharzuna (baina hori luzexko edo...) eta hautatu zuten HERRIA. Lafitte jauna manatu zuten, behar ziren urratsak egin zitzala: Baionako "Comité de Libération" baitan; Dr. Garat Defos du Rau, Guillaume de Hiriart eta holako batzu ziren hor. Haatik talde horrek debeka ziron agertzetik bainan baimenik ezin eman.

Pauen gaindi alferretan ibilirik, Bordelera jo zuen Lafittek, Rue Judaïque delakoan Sud-Ouest eskualde guziko kasetaritzza bulegoa hor baitzen. Hor jakin ez zela baimen beharrik batere, eta gibelerakoan Piarres Lafitte itzuli, erranez... baimena bazuela: alabaina, nun zen hor gezurra, baimenik behar ez bazen?

Gero kaseta egiteko papera behar. Hain xuxen Frantziako minixtro diruzainak mailegu bat egin zuen kaseten laguntzeko. Hori jakin orduko Piarres Lafitte xuxen joan erranez kaseta egiten zuela eta papera galdatzen zuela. Papera? Zentbat? Hiru mila kasetarena galdatu eta denak ukan. Geroztik ez dauku behin errepikatu Piarres Lafittek zoin "zozoa, zozoa, zozoa izan naizen!" ..gehiago ez galdaturik! Hain segur denak ukanen baitzituen.

Eta huna nola 1944-ko hazaroaren 16-an agertu zen lehen herria, erran nahi baitu Eskualduna gelditu-ta kasik hiru ilabeteren buruko. Dirua aldiz Elissalde-Zerbitzari apezak, eta harek bakarrik eman zion Lafitti: 2.000 libera!

Balitake asko erraiteko Herria-ren lehen denboretako ixtorioaz. Denen gostua nola egin, alabainan, Lafitte batek

bereziki? Lehengotz, gerla aintzinean, Aintzina-ren denboran idekidura eta zabaltasun ausartago batean gauzen ikusten zakienak, nola egin betiko geldikarien gostua?...

Hortaz hau dugu guk bakarrik erranen. Bere denboraren ikusle hoin begi xorrotzekoa den izpiritu hunek geroa duela beti gogoan. Hartu dituen laguntzaileetarik batzu han harat deramatza adinak, bera bezala, egia erran. Bainan beti bilatu eta bilatzen ditu Lafittek gazteak bere ondoan. Nahiz lagun fidela eta bihotzekoa den bera bere denborakoentzat, beti nahi izan ditu berriketari berriak, herri bakotxean, eta hobe jaun ertora bera ez bada ez berri-emaile, ez kaseta saltzale.

Orai Herria astekariaren berak egitea ere badu hamar urte utzia duela, lehenik J. Hiriart-Urruty, gaur bikario jeneral dugunari, eta gero nihauri.

Utzia erran dut. Bainan zer da holako langile porrokatu batentzat lan baten uztea? Bi eskuak sakelan etxerat joan-eta lo ederrik egitea? Bainan bihotza su batek hartua delarik, egin ditakea holakorik? Ez! Lafittek Herria utzia izaitea hau da: bere zuzendari ordaina osoki libro utziz, konfiantza osoa eginez kasik tronpatzen balitz ere, norik daki, biziari eta geroari eta besteri konfiantza eginez... bizkitatean denbora berean beti hor izaitea bera beti laguntza ixil baten egiteko prest, noiznahi paperño bat eskuan jinez alegia deusez: "Ori! Besterik ez duzuneko! iduritzen bazaitzu!" Eta baterez gaitzikor iduritzen ez balitzait... Edo ere asteart guziz Baionarat jitea, kaseta egiteko egunean, irarkolarat eskainka: Baduzia zerbait korreitzeko"... kasik fagore bat galdatzen balu bezala bera baino gazteagoari, baldin berak ixil ixila oraino ere beharrez lanaren erdia egingen-eta.

Utzia izaitea, hau ere da Lafittentzat. Norbaitek, gaztea-goetan, huts egiten badu kasetaren idazleetan, balio haundiko sail bat erortzerat utziz, orduan Lafitte zait heldu, beti bezala: "Nik egingen dautzut hori beste bat hatxeman artean, nahi baduzu!"

Eta horra nola doan Herria Lafittekin, 33 urte huntan. Berak bere lan guzien gaineat hartua, Lafitte bezala artzea onartzen duten langile andana batekin egun hemen zirezten berriketariak bezala: beste lan guzien gainerat eta urririk

amodio xoilez Euskal-Herriarentzat eta gure herrian bizi dadin euskara.

Piarres Lafitte maitea, milesker zuri! Zuk erakutsi bidean ez dugu guk zure heineko urratsa, bainan eskola hor da, nahi duenak segitu. Egunak jin, egunak joan, urak bide egin du eta kasetalaritza ez da duela 40 urtekoa. Kasetak ezpata xorrotxa bezala ziren denboran, xixtakor, alderdikari eta mementoko edo erlisionekeo zuzenen zaintzale, ez zinuen nehoi zorrik zure tantoaren sakatzeko. Orai aldiz badakizu zuk, nehork jakitekotz, mendea kanbiatu dela. Oh etzaizu, ez, luma lapustu edo kamustu, ez dautzu gatza idaia modakoen ur melekak iretsi. Gostukoa daukazu beti janari azkarra, idaien borroka, bainan badakizu kaseta bereziak sortu direla guduka hortako, zuk Aintzina sortu zinuen bezala eta denak harrapaka irakurtzen ditutzu. Herria aldiz nahi duzu orori idekia, denen argitzaile, gurikeriarik eta eztikeriarik gabe bainan gizonaren, biziaren, egiaren, herriaren errespetua lehen edukiz.

Hots! Zure aspalditikako lanen esperientziarekin, eta zure betiko bizitasunarekin, hor zaude beti gurekin eta hobe! Baitugu zure beharra, bazkari on batek arno zahar on batena bezala.